



ikastolak



LABIAGA IKASTOLA BERA



Mikel Esnaolak ez dio sekula hutsik egin Berako inauteriari. Inudez bakarrik ez, eta Aita Joxeperen pertsonaiak ere moztortu izan da inoiz.

📷 Labiaga Ikastola

BERA —Berako inauteriak gainean ditugu, jantziak armairutik atera, eztarriak berotu eta hankak ongi luzatu eta gero prest gaude inauterietan parte hartzeko.

Horren ezagule dugu Mikel Esnaola Urkia, inauterietako zita inoiz galdu ez duen beratarra. Urtero legez, igandean inudez jantzi eta dantzari atera izan da Mikel, 2017an aldiz, rola aldatu eta Aita Joxeperen papera aski gustura bete zuen.

Ikastolan, aurten ortzegun gizean konpartsako kide izanen gara eta esperientzaren berri izan nahi genuenez elkarrizketa egin diogu Mikeli.

Urtero, inauterietako igandean inudez jantzita ikusten zaitugu, baina 2017an Aita Joxepe izan zinen. Zerk eraman zintuen soinekoa, koroarengatik aldatzera? —Inude eta artzaiak aunitz gustatzen zaizkit. Urtero ateratzen naiz dantzatzeko. Ikastolan ginenean hasi ginen dantzan eta gaur egun arte urtero atera naiz inude eta artzaletan. 2017an aldiz, hankan lesio bat nuen ezin nuen dantzatu eta parte hartu nahi nuen ez bi lagun konbentzitu nituen nerekin kotxe gainean joateko, Aita Joxepe eta laguntzaileak. Esperientzia polita izan zen.

Inudez maiz ikusi zaitugu, Aita Joxepe jantzita ere agertu zara baina, bertzeko pertsona batez atera zara Berako inude eta artzaletako konpartsan?

—Urtero inudez dantzan ateratzen naiz. Urte horretan ezin nuelako dantzatu paper hori hartu nuen, baina orain berriz dantzatzeko segitzen dut, eta aurten ere dantzatzeko egonen naiz. Momentuz ez naiz konpartsako bertzeko inor izan. Etorkizunean beharbada?

Nola aukeratzen da Aita Joxepe? Jende aunitz aurkezten da?

—Egia erran ez naiz oroitzen ea aurkeztu ginen bakarrak izan ginen edo ez, baina oroitzen naiz dezentte eskatu genuela paper hau. Antolakuntzan sartua nintzen eta hasieratik erran nuen paper hau nahi



Mikel Esnaola Urkia

BERATARRA

“Momentu hunkigarria izaten da inauteria, denen aurpegi alaiak ikusten dituzu”

nuela, hankako lesioagatik ezin nuelako dantzatu. Normalean denen artean moldatzen gara eta paperak gure artean banatzen ditugu. Giro hagitz ona izan ohi da.

Aita Joxepe izateko zerbait berezia egin behar da? Zer egiten da egunean zehar?

—Dantzariak eta konpartsako bertzeko pertsonaia guztiak bezala Aita

Joxepe goizean janzen da, herrian barrena dantzariak dantzatzeko duten bitartean Aita Joxepetik dant-

“Inauterietan inudez moztortua ateratzea aski polita eta dibertigarria da, momentuz ez nuke ezerengatik aldatuko”

tzariak agurtzen ditu, konfetiak botatzen ditu eta eguerdian denak elkarrekin bazkaltzera joaten gara. Ilar gorriak gustura sartzen dira egun horretan! Hala ere ez du bertzeko lan edo esfortzu berezirik eskatzen.

Erran duzu goizean, ernatu eta jantzi behar zarela. Aita Joxeperen trajea zuk josi behar duzu?

Erosoa da?

—Jantzia, apuntatzeko momentuan Gure Txokoa Dantza taldekoek utzi zidaten. Beraiek dira egun berezi hori antolatzen dutenak. Aita Joxeperen jantziak gain badituzte bertzeko konpartsakide batzuen jantziak ere uzteko. Arropak aski erosoak dira.

Aita Joxepe izatearen gauzarik politena? Eta okerrena?

—Urte horretan aski ongi pasatu nuen. Hagitz dibertigarria da Aita Joxepe izatea, bertzeko noizbait ere errepikatu nahiko nuke. Pertsonaia honen gauza politenetako bat abestian dantzari guztiak begiratzen eta agurtzen dizutenean da. Denen aurpegi alai eta girotuak ikusten dituzu zuri begira. Momentu hunkigarria izaten da! Egundorretako ditudan oritzapen onenak horiek dira, konfetiak bota eta haur ezberdinen irribarrea ikustearrekin batera. Gainera, Aita Joxepe izanik kotxe gainean joan nintzen, eta ez nintzen batere nekatu. Alde txarra ez dantzatzeko da. Egundopolita da eta egundohonetan inudez ateratzea ez dut momentuz aldatzen, aski polita eta dibertigarria baita! ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Konpartsako ze pertsona desberdinetaz moztortu izan da Mikel?
2. Zer bazkaltzen du gustura inauteri egunean?
3. Nork utzi zion Aita Joxeperen jantzia?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ TXARTELA: Xabi De Leon Marqués (Argia Ikastola) eta Arane Martínez (Ibaialde Ikastola).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.